(1)

[illegible] Aufsätze

J. M. J.

Renovamini spiritu mentis vestrae, et induite novum hominem qui secundum Deum creatus est in justitia et sanctitate veritatis. — Erreberri zaitezte zuen arimetan, eta jauntz zazu gizon berria zoina creatua izan baita Jincoac nahi bezala, justizian eta egiazco sainduetasunian.

Outsa hasteco urthe hau, eta urthe hau egiteco urthe on bat, moiïna hoberena izanen da J. D. Paulorena abusnari behatzia. Erreberri zaiten berar giristino espiritutan; imitatuz J. Kristo gure modela, zoinaren idurico izan behar baitzira, nahi balinbagira zerurat heldu.

Apostolua mintzo da hemen gure beraren bilhuztiaz gizon zaharretic, erran nahi da utzho egitiaz gure jaidura txar guziei, eta gure pasioneu sacrificatziaz Jincoari urthe berri huntan. Igaran den urthearekin fini dadiela bekhatua ere; iganden urthearekin fini ditezela impietatia, juramentiac, madarisionac, hersac, mendekhiac, ohointzac, lizunkeriac, hordikeriac, escandalac, hitz batez gutartian ikhusi diren bekhatu eta desordre guziac, eta horien orde ikhus ditezela urthe berri huntan, erlihionea, modestia, temperantzia, eta caritatia. Hatsarrian aiphatu hitzez hori daneu J. Pauloc traditzerat eman nahi.

Atzo hasi dugun urthia igaiten balinbadugu sainduki, giristino berthutiac praticatuz, urthe dohatsu bat izanen da guretaco. Alferretan izan liteke zoriontsua munduaren

arabera,

afferetan, ethkar lakhitzikiguke nahi ditugun ontasunac, nahi ditugun ohoreac, nahi ditugun atseguinac; ez balin badigu sinduthki igaiten, urthe dohacabe bat izanen da guretzat. Bainan contrarat igaiten balinbadugu sinduthki, trebesatua izanic ere, zombeit girthacari gaichtoz, dohatsua izanen da bethi guretzat, eramanen baikitu orduan zorion eternalerat. Balia gitean beraz urthe berri huntaz zertaco eman baitauku Jincoac eta hartaco, gure salbamenduaren egiteco.

Ikhusiren ditugu, g., zer arrazoinec behar gituzten ekhari denboraz ontsa baliatzerat.

Zombatenaz ere ontasun bat, eman nahi daucutena, baliosagoa eta nesesarioagoa baita, hanbatenaz gehiago behar dugu ontasun hura preziatu estimatu; zombatenaz ere laburragoa baita ontasun hartaz baliatzeco denbora, hanbatenaz lehia gehiago behar dugu hartaz baliatzeco, noiz eta ere bereziki, hartaz baliatu gabe egoiten bagira, ez baikira orduan hartaz baliatzen ahal gehiago. Holacoa da bada denbora berenaz; baliosa da, laburra da, eta galtzerat utzi denian, ezin edirenia ezin erreparatua da. Eta hirur arrazoin horiec gituzte ekhari behar harren ontsa igaiterat.

Denbora baliosa da; ehede handiz emana izan zaucutalacotz, eta J. Khristori hainitz zaiolacotz gosta, haren meresitzia guretzat. Zertaco daucu Jincoac eman, eta oraino ere zertaco daucu Jincoac



emaiten denbora luzean bizitzeco? Ontasun biltzeco othe, ohoren ardietsteco othe, gure aisia hartzeco eta gure pasioneen contentatzeco othe? Ez, ez; bainan bai zeruaren irabazteco. Denborac eraman behar gitu eternitaterat, eta gure eternitatia dohatsua edo dohacabea izanen da, denboraz ontsa edo gaizki baliatuco giren bezala. Memento oroz irabaz dezakegu eternitate dohatsu bat, zeren eta ez baita memento bat gure bizian zoinetan ez baikira bakhetzen ahal Jincoarekin, bekhatoros balinbagira; edo graziaren estatuan balinbagira, emendatzen ahal baitugu memento oroz, zeruan ukhanen dugun loria, ongia praticatuz. Harra zertaco erraten ahal memento bakhotxari dependitzen dela eternitatia, ez baita memento bat baizi behar haren meresitzeco edo haren galtzeco. Utzten badugu igaiterat emana zaucun memento hoi, ez balinbagira presenteco denboraz baliatzen, ez dugu hil ondoan, meresitzen ahalco deusere. — Tempus non erit amplius. Hil ondoan ez dugu bekhatuen barkhamendurik ardiesten ahalco, eta ez dugu zerua meresituco duen gauzarik eguinen ahalco. Damnatuec ifernuan, nigar hainitz ichurico dute, thormenta handiac pasatuen dituzte, eta beren nigar eta thormenta guziekin ez dute bekhatu bakhar baten barkhamendua ardietsico. Sainduec zeruan Jincoa maithatuco dute, eta Jincoa zeruan nahi bezinbat maithatuz, ez dute beren zoriona emendatuco, zeren eta bizi huntaz landa, ez baita meresimendu berririk irabazten ahal. Oh! zoin den beraz

baliosa bici huntan denbora, eta hainitz duela hunela sartac beliatzia hunen.

Bainan sinhesteco hobeki denboraz egin behar dugun estimua, ikhus dezagun zer gosta zayon J. Kristori denbora hori guri ukhan araztia. Denbora hori guri ukhan arazteco deitu garen hotza, gosia, egarria, pasioneco iraiac, tharmentac eta ikhurutzearen gaineco heriotzia. Guri merezitzeco gure bekhatuen penitentzia egiteco denbora, du bere burua ofregitu bere aitaren justiziari. Jinkoaren contra errebeltatu aingeruer etzuten ukhan menmento bat choilki, beren erorkoti altchatzeco, beren bekhatuen erreparatzeco. Guri aldiz Jinko horrec berac emaiten deraiscu egunac, hilabethiac, urthiac, gure bekhatuen penitentziaz borratzeco, harren justiziari zor ditugunen pagatzeco, harren misericordiaz gure gaineat jauts arazteco, Nori eskher dugu bada fagore hori? Erran dutan bezala gorago, J. Kristori eskher harren merezimenduei, harren pasioneari eta heriotzeari eskher.

Zonbat aldiz Jinkoac, colera hartuaz bekhatorosaren contra, ez du altchatzen izan bere justiziaren besoa, arbola agor, fruitu gabe horren moztéco! eta zonbat arbola agor fruitu gabe horien artian, etzirén jadanic suan causituco, J. Kristo arartéco soberanoac ez balu grazia heientzat galdatu, othoitzez bere aita iguritekiaz oraino, fruituen ekhartzeco denbora zerbaiz emaitecotzat! Dimitte illum et hoc anno.

Ah! Jauna har zazu pazientzia urthe huntan oraino, ikhus-

teco



arbola horrec fruituac ekharrico ditianetz, eta ez balimbadu ekhartzen, moztuco duzu orduan. Horra beraz, bekhatorosa, J. Kristoc zuretzat galdeitu duena. Bainan denbora hori, J. Kristoren sofrikanzer eta heriotzeari eskher emana zautzun hori, nola preziatzen duzu? Zertan igaiten duzu denbora hori. Jinkoac emaiten dautzu denbora, obratzeco zure salbamendua, eta denboraz baliatzen zira zure buruaren damnatzeco. Eta zure zonbat denboraz abusu egiten dutenac, denbora igaiten dutenac deusic egin gabe. Ba zonbat igaiten ditustenac egunac, astiac, hilabetiac, urthe osoac, deusic egin gabe salbamendurentzat. Ez dakite, diotenaz, zer egin denboraz, luze causitzen dute denbora, eta hortaco dabiltza compainia batetaric bestezat, libertimendu batetaric bestezat, denbora horren iltzeco bezala. Ah zorozac, diot hunen S. Bernatec, denboraz zer egin ez dakitzu horien, ontsa gaizki arrazoinatzen duzuela, erraiteaz behar dela zerbit eragiaz igan denbora; denbora hori emana zautzuela, penitentzia egiteco, zuen barkhamendua ukhaiteco, graziaren ardiesteco, zorion eternal baten merezitzeco! Ez dakizu zer egin! Bainan zer ez duzu egin behar? Ez othe duzu behar othoitz egin? ez othe ditutzu behar obra onac praticatu, pobriac lagundu, eriac bisitatu, eskolisioneren gaineco eta debozioneco liburuac leitu? Ez othe duzu zure estatuan eguibideén bethetzeco, berthuteen praticatzeco. Ah! sinhesten bazinute baduzuela egiteco bat arras handia, zuen salbamendua, eta ez duzuela bici huntan denbora baizic, hartaz ocupatzeco,

harren obratzeco,

luze causi orde denbora hori; labur causi iruraiteke, eta hartan
memento gutiez ontsa balia ditaiteke. Ifernuan damnatuer
balute, ez dut erraten zuen durunan denbora, bainan ba balute
bakharric zuen funtsic gabe, eta ez ordeusthenian galtzen duien-
naren phartke bat, phentsa nola lotarzkeen hartaz balia.

Denboraz abusu egiten da orano egin behar litazkenez
bertze zerbeit eguiez. Hanitzac occupatzen dira ontsa munduan
huntaz edo hartaz. Batzuec igaiten ditiezte beren egunac tratuan,
batzuec aldiz laborantzan, edo bertze zerbeit ofiziotan. Batzuec
higatzen beren orazarria izpirituco trabailuaz, eta batzuec
gorphutzeco lanaz; bainan gutiri zaizte salbamendua gogo-
ratzen, eta horrela gisa batez hain bethe egun horiec, hutsac
dira obro ouez, hutsac eternitatecotzat! Ez nahi ez dira arras
alderat utzi behar munduco aferac, behar da munduco aferez
occupatu beretzat eta bertzeentzat; bainan hetaz occupatzia
bakharric, arima eta gorphutz, eta salbamenduaren ahantztia,
alferretan akhitzia da, denboraren galtzia da.

Bainan abusuric criminelena denboraz egiten ohi dena, hura
da denboraren igaitia gaizkian. Eta hoi girenen artean usu da
cantitzen. Batzuec ez dut aipatzen goizetic arrats pasionetan
baten contentatzia baizic, ocasione gaichto batetarat guaitia
baizic, libertimendu lanjeros bati libratzia baizic; bertze
batzuec nozi zer, non eta zer gisaz ebatsico duten bilhatzen
dut denbora guziau, eta ahal ditiztenen injustiziaz gero eginen.

6

bertze batzuen orano ez izanen omen elkar baterat gundecatu gabe
elkar bat jasarri gabe, elkar bat behertu gabe. Ba gehienen
hola deble igaiten denbora. Zertaz da bilkhuretan, compai-
niatan jendia eunitzo? Libertimendu tzarric balinbada nehon
desordreric, escandaloric balinbada nehon, hetaz. Bertze zer
bizio, defaut, diren, bertze zer egin behar luketen erraiten da
compaïnia eta bilkhura hetan, bere burua han sartu gabe,
ez badira orano atchikitzen, medisentziaz bertzalde, solas lizu-
nac, eta erlijioneare contracoac, impietatezcoac! Ezran uste
balta Jincoa eman daucun eguin bat berthutearen pra-
ticatzeco, zeruaren merezitzeco, nola hartaz, hanitzac baliaz
zen girela, gure damnazionearen egiteco. Zer itsumendua, zer
ez ahalgekeria, gure egiaco onarentzat! denbora balios hoi,
salbatzeco emana zauzun hoi, hanitz laburra denaz geroz.

Eta zuer, g., zer da gizonaren bizia! amets bat eratzar
tzearekin ahantzia dena; kerizo bat, jotzendenaren araberà,
hainiai deramana; khe bat, airian berehala suntsitzendena.
Yendu bezin zarri, munduarat, gizona behar da hanen urtsiaz
orhoitu. Ez da halaw zirau urthats bat baizic, ohoitiu thonbat.
Gizonen artian gehienac gute dira bizi. Eta zer dira biziaren
akhabantzan, gehienec bizi direnen urthiak? Mila urthe
ez dira Jincoaren begietan, dio Profetac, ez cabera bat itsa-
soaren aldian bezin bat ez atzoco eguna iragala baizic: mille
anni tanquam dies hesterna quæ præterit. Biziaren lusina,

eternitatiaren aldean, ur tanta bat itsasoaren aldean beçembat ere. Zer zaitzu, g., zure hogoi urtheac, zure hogoi eta hamar, berrogoi, berrogoi eta hamar, hirur etan hoi laur etan hogoi urthe balitzen gutartean bizi izatu denic hainbertze? Egun bat, memento bat; zure bertze urtheac ere iraganen dira gisa berean eta causituco zira, gucien buruan, bizitzen doidoia hasia bazin bezala. Zoroa beraz munduco huntaco gauza iragancorrer atchecatzen dena, bere zoriona bizi labur huntan esarten duena, eta bizi hortaz baliatzen ez dena merezitzeco zorion bat hobeki edo bethi iraunen duena!

Jaincoac eman darocu bizi huntaco dembora ontasun bat aferman eman balauco bezala, haren gero berriz hartzeco edo erretiratzeco. Gure gorphutzac etcheto batzuen pare dira, egun oroz deseguiten, hugatzen hari direnac, eta laster utzi behar ditugunac; gure bizia laburtzen hari da egun oroz, haleco gisan non, zombatenaz ere gehiago bizi izan baikira, eta hambatenaz gutiago biziko baikira. Azken eguna ez da jitia biziki luzatuco hoberentic. Eta lehia gaitean hortaco baliatzerat, hain laster dohan dembora hortaz, eta bertzalde erreparaezditakeenaz, galtzerat utzten balinbada.

Eta zure galdua izan den dembora ez da berriz ethorrico, luzea igan ditugun egunac eta urtheac ez dira gehiago gure escuco. Dohatsu igan balinbaditugu ontsa, merezimenduzco tresor batzuen pare dira, iraganic ditugunac, eta gurekin dauzcagunac;



bekhatutco da, praticatua izan denean, gauza bat hugatzen ez dena, badagona; gure othoitzac, gure penitentziazco praticac, gure mortificacioneac, gure amoinac, causituren ditugu hiltzeracoan, eternitatean.

Bainan gaichki igan balinbaditugu gure biziko egunac, egun horietaz egin dugun galtzea erresurtzic ez da. Penitentziaren bidez erreparatzen ahal ditugu oraino, igan denborako bekhatuac; bakhetzen ahal gira, penitentziaren bidez Jaincoarekin, igan denboran hainbat ofensaz ofentsatu dugunarekin, bainan ez ditugu ukhanen gehiago memento balios hec, zoinetan erakutsiac izan baitzitazkeen salbaarazi behar gintuzketen grazia bereziz batzuez. Eginez orai obra onen praticatzerat khanekin, bethetzen ahal dugu hainbatez, igan denboran praticatu gabe utzi obra onen hutsa; merezitzen ahal dugu oraino, mahasterat azken orenean ethorri ziren Ebangelioco langileac bezala, lehen jinei emana izan zaucoten saria (bera); bainan obra onac dembora guzian praticatuz, ardietsico ginuen berria handia.

Nolacoa ez da beraz izanen hiltzeracoan denboraz abusu eguin izanen dutenen hira, erregreta! Nolacoa izanen bekhatoros haien erregreta, (ifernurat jausteareki,) eta ikhusteareki iganac direla egun eder hec, zoinetaz balia baitzitazken zeruaren merezitzeco, zoinetan Jaincoaren graziac hertchatzen baitzituen bihotza creaturatu bereziterat, creaturarentzateco estecamendu criminelaren

urratzerat. Izanac izanen dira heien jelaren guziac, dembora rekhin batean; desiratuco dute dembora harzen ukhaitea izanic, bainan beren nigar ekhormenta guziez ez dute itzul araziko mementorik laburrena, zeini izanen zena aintzinean heien urruntzeco zorigaitz eternaletic.

Egonen othe zira, g., zorte bera ukhan gabe artio, ikhusi gabe seriozki demboraren baliOa, eta nigarrik egin gabe galdu dusunaren gainean. Eta egiazki zonbat dembora eta mementoren ez duzu egin deja abusu. Galde ezozu zuhaurrari zure burari: lurrean nizenetic hunat, zer egin dut ene salbamendurat; erauntsi dut bainan, hanitz erauntsi mundu huntarakotzat edo bertzientzat, bainan ez dut bater edo bater casic erauntsit zerurentzat edo eternitatearentzat. Behar baunutz orai berain agertu Jinkoaren aintzinerat, ezcoitz mentura presentatzen ahal actione bat bakharric hertaz saristatua izaitea meresi duenic. Holako consideracione batzuen egin ditzagun guzien demboraren gainean; ikhus dezagun dembora zoin den baliosa, zoin den laburra, eta galtzerat utzi denean, ezin erreparatua. Erreflexione seriosa horien ekharri gitutzia hasi dugun urthe berri hau sainduki igaiterat, eta hatsarrian erran bezala, sainduki igaiten badugu urusa izanen, guziez dautzuet desiratzen. Halabiz.

J. M. J.

2

Multi sunt vocati, pauci vero electi. — Hanitz deithuric bainan guti hautaturic.

Errege batec, dio J. Kristoc, nahi izan zuen egin bascari handi bat, bere semearen ezteietaco. Hanitz jende deithu izan zituen bascari hartarat. Hanitzec etzuen jin nahi izan, eta jin zirenen artean bat causitu zen ezteietaco arropa etzuena; erregec (har esteca) arazi eta presondegi ilhun bate-tarat ardiez arazi izan zuen, zango besoac estecatua.

Horrela, dio bethi J. Kristoc, hanitz deithuac dira zeruco erresumarat, bainan guti hautatuac. Egia harrigarria, g. g., eta beldurrez salbagarria guri emaiteco gai dena. Ez consideratzen badugu, salbatuco direnen eta damnatuco direnen nombrea dakhigun, daucula hoi erranen zaizu garbitki; mundu egun, errege profeta bezo gehiago, izialdurari bisionez hartua izan gabe, hezurren ... : conturbata sunt omnia ossa mea. Eta zuer, eguien balinbada gutar, eguien den bezala, hil ondoan jujamendu bat ikharagarria, eta gure seculaco zoria han ikhusico balinbada, eta han condenatuac izanen direnez gazan behar beharo balinbaditugu arima ez edetasken thormentac, eternitate guzian, bada har harcazzeren lotsa araztheco arrazoina frango; bainan elitake hainbertze ukhan damnatuen eta dohatsuen nombrea behar baitu izan ttipiena, fedeac erdian contraco gauza deusu erakusten: pauci electi.

Ez bagitu, g. g., egia horren gu baithan sar arazten, sinhetsi

bici-arartean, cerc gaitu muthikiteco, gu baithan sar arasico?
Ikhusico dugu, aldi huntan, deithu hanitz delarik, nola da
bada hautatu guti.

Ba, g., gauza segura guti direla salbatzen, eta hanitz damna-
(gutienac — interlinear, above "hanitz damna-")
direla, diot arec, gauza segura hai guretzat, consultatzen balimba-
ditugu Escritura Saindua eta Ebangelioa. Hautatzien numbria
comparatua Escritura sainduan Noeren familiari; Noe bere
familiarekin, bait zortzi presuna guzietarat baitzirin salbatu
uhaldi generalian, bertze jende guziac ithoa ziren denboran.
Hautatzien numbre ttipia comparatua da oraino arbolatze batian
fruituac irau diren ondoan, arbolatzea harri gelditu zaizcon
fruitu banakhei, edo elge batetarik errealta sartua izan den ondoan
elge hartan gelditu zaizcon ogi edo artho buruer. J. Kristoc
ere zer erraten darou Ebangelioan? hitzez hitz: guti izanen
direla hautaturic; zeruco erresumarat deramaan bidia arras hertsikia
dela; guti hartzen eta atzhikitzen dutela bide hura; zerurat
sartzeco athia arras aphala dela, eta guti direla han igaiten:
arcta via est quae ducit ad vitam; pauci sunt qui inveniunt eam.
Ez bausa ere ikhar bertze lekhucotasunic, hautatzien numbre
ttipia aguri litake, eta beldur sinda batez hartuac izaiteco
arrasoinic aski bagimuke hoberenec berec. Baiman behar dautzut
egin hai beguin aintzinian ezarri eta ezeuz hunthi-arazi bezala.

Iainkoac deitzen ditu giçon guziac bere zeruco erresumarat eta
Iainkoaren zeruco erresuma da Ebangelioan itzhuratua eztheietaco bar-
— cariar



Erreges, bere semearen eztheietaco barcarirat jende hanitz deithu
zituen, eta bere zerbitzariec manatua ziozten sar-arasteco
barcari-hartarat, causituco zituzten guziac, nor nor zen casuri
egin gabe: quoscumque inveneritis, vocate ad nuptias. Ez, g.,
ez da nihor gutartian J. Kristoc aguindu ez dioenic lekhu-
bat barcari eternal hartan. Barcari hura, bera bere gastuz
preparatua du guretzat; hartarat bortha zabaldu izan
dauen bere sofricarioez, bere odolaz, eta heriotziaz; egorri izan
ditu bere zerbitzariac erran nahi da bere apostoluac eta oraino
ere egortzen ditu bethi aintzinia bere ministroac edo aphezac
giçonen deitzeco barcari hartarat: vocat ad nuptias. Emaiten
dioizkit guziei necesario diren laguntzac lekhu batu merezit-
zeco barcari hartan, hai gabe harren conitua alfer izan bai-
litake, eta ez baita nihor, fedean eraunsten dauen bezala, nihor
zorioc hartarat heltzen ahal denic bere indar choilez. Ez desa-
gun beraz eman hautatzien numbre ttipia Iainkoaren gain,
Iainkoaren borondate escasaren gain ez eta ere J. Kristoren gain,
J. Kristoren merezimendu escasaren gain. Hain gaitu balinbada
hautatzien gizonen artian, berer behar ukhu hortaz gazari; bere
gain behar dute hai eman. Iainkoac, bere ontasunian, deitzen ditu
guziac bere zeruco erresumarat, multi vocati. Eta gutienac bera
ezachotatasunaren eta maltzurren ondorioz, ez dira nahi harren
dei salbagarriari behatu: pauci electi. Ba, g., horra numbreen
bere causa hautatzien numbre ttipiac. Batzuec, eztheietaco

barcarirat deithuac izan zirenac bezala, eta gero horrekin harat
juaitia errefusatu zutena bezala, ez dute desgusturic baizen
ontasun eternalentzat; bertziac, eztietaco barcarirat, eztei-
etaco arropa ukhan gabe juan zen girona bezala, merezi-
zen dut, beren conduita charraz, aldiz hia izaitia ifernuco leze
beltzetarat! Behar othe gira beraz estonatu gehiago, gusiac
deithuac izanagatic, hain guti hautaturic izaitiaz-jauniclet?

J. Kristoc Ebangelioan aiphatu erregiac, bere semiaren eztei-
etaco barcaria preparatu zudian, egortzen zitu zerbitzariac
conbitu gusien conbitatzerat, eta gehienec beraz errefusatu zuten
juaitia, estacuren batez edo bertzez. Batzuec ihardetsi zuten,
conbitua emazte berriarekin, juan behar zirela beren bazter-etchein
ikhusterat; bertziac beren tratuetarat, edo ofiziorat. ~~Eta hona~~
eta etzutela presatu egin nahi zioten ohoria; eta hanen zer
dauca itchuratzen! Giron guziac deithuac direla zeruco eztietarat,
eta gehienac horrekin, zorion hartaz casuric egin gabe, emaiten
direla osoki lurreco interesei, eta ezdutela amodioric eta gutiziaric
lurreco gausa izdesentzat eta iganzarentzat baizen. Jinca
helduz zaiote amtruierat; dutzen deita berac batzuetan bere
graziaz, edo bere ministroen ahoz, bilhatzerat behere huntaco
zoriona ezbesalaco bat, eta hautzec deithori ezdute entzuten.
Ikhusiarekin zoin gotic hari diren beren lurreco aferetan, tra-
tuan eta bertze laneetan, erran detake ezdirela eguiac lurreco baizi
Minitratzen baratu salbamenduaz, othoitzaz, sacramenduez.



debozioneco pratikez, ezdut lenguaia hain endelgatzen, ezdut
denboraric gausa hortaz orhoitzeco, eta ocupatzeco. Edo zerbutch
egiten badut, noizetaric bortchaz bezala eta desgusturekin.
Egun guzietaco eta bekhatu guzietaco experientziac damu hoi eracuste-
en treiga hautz egiten, eta harat hunat hautz ibilten ohi
dut gironei, mundu huntaco aferentzat, baina eternitateco
ez zaizkot gogoratzen eri. Bada, ~~ho~~ haldeiten dauzkut hoitaco
ezacholatasuna baliabadut girona artian gehienec, salbamenduaz
buruz, esperantza handi bat ukhaiten ahal othe dut hautetsien
nonbrian cantatuco direla. Baina hoi hautetsien nonbreti
fiaren causa bat da, gehienen ezachholatasuna; eta Ebangelioac eracus-
ten daucu oraino hobeki hautetsien nonbre ttipia, eztietarat
presentatu zen giron hartan, eztietaco arropa ukhan gabe. Eta
zer, J., zer seinale zuen eztietaco arropa horren, eztietaco barcariaz
phartha hartzeco ukhan behar zuena? Seinale zuen, dio S. Gregoriok,
grazia santificanta, eta caritatia, arima giristinoa aphaintzen
dutenac, eta aphaindu behar dutenac, arima hori zerurat, zeruco
zorionerat heltzeco. Bada zonbat giristino dut grazia santi-
ficanta hori (berekin) juinivarsentratzen amodio eguiaco hori berekin, Jaincoa-
zen adiskide eta haren erresumaco premu egiten gaituztenac?
Grazia santificanta ezda cantitzen ahal arima moralaren, behineri
bekhaturic egin ezdutenetan baizi, edo penitentzia zin ~~sinesco~~
bat ber bekhatuez eguia dutenetan baizi. Ez da bertze bidiric
zeruan sartzeco, inozentzia edo penitentzia. Baina, ondoriot, zoin

(bathaiaco) guti inozentzia begiratu izan dutenac denbora gusian, edo
edirein dutenac penitentziaz. Inozentzia! Baina zoin adinetan,
zoin condizionetan (zoin estatutan) causitzen dugu tresor hoi? Haurtasunian
othe, haurren artian othe! Ez da bakar arraro haurrac bere
Jincoaren legia haustia, adimendua jen zaionotrat. Ispiritu
Saindua errana; amaren sabeletic beretic gaisthorat ekharria dela
girena; erraverunt ab utero. Gure denbora tristetan beresiki, zomba-
titanic eta zombat aldiz, ez da entzuten ez dela haurric gehiago.
Eta ez baladi ere haurra bera ahart eta libra gaisthoari; zer exem-
pluac ez zaizco ikusi nahi helduz begien aintzinerat; zaico bekha-
tarosen errespetatzen ohidute haurra. Sodomaco eta Gomorraco jende
infamic beino gehiago. Aita ama tzar eta laro hainitz bada, eta
on eta zuhur beino gehiago, eta burhasso tzar eta lasoen haurrac
ez dira inozent izaiten ahal, miraculu batez campo. Burhasso on
eta zuhurrenac ba holetki; baina heiena ere [illegible] etan, uste
ez dutelarik, deia corrompituac, gaisthoari ohartuac eta libratuac.

Causitzen othe da gazterian, gazten artian inozentzia? Bai-
nan nore ez dathi adin hoi dela langerosena, adin hartan direla
pasioniac, gaisthoac jaidurac borthitzenic? Ikhusten ahal othe
da gazte hautez zerbeit desordreri emana ez denic? edo desobedi-
enta, edo debocha, edo libertina eta lohia ez denic? Gausa bera
presuna ezcondurez eta zaharrez. Aiphatua dut deia, burhasoen
artian guti direla beren eginbidiac haurren alderacoac beresiki
betheteren dituztenac (Jaincoac) behar beçala, Jincoac manatu beçala; eta



gainian ere. Presuna ezcondurac ezcontuan, aintzinian zen hura
bertsua da (eta tzarrago batzuetan) zahar guti da; baina
zaharen beren artian ez othe dira beren gaztetasunco bizioac
eta habitura tzarrac berekin dituztenac Eraino? Ahalic et
lehen beinbat bekhatu egiten, baina bekhatua maite
bihotzez lehen beinbat (edo ez, aintzinaco hoben hec nigarrez
garbituac.) Adin gusiac curritux, ikhusten dugu beraz inozent-
zia guti dela girenen artian. Examina ditzagun orano condizi-
one eta estatu diferentac. Aberatsac pobrientzat idorrac,
eta pobriac aberatsen alderat bekhaizcorrac; aberatsac
galtzen alferkerian eta gurikerian, ontasunen emaiten baitioie
bide pasione tzarren contentatzeco medianac; pobriac ez damna-
tzen beren miserian, ez dutelacotz miseria pazienki pasaiten
edo hartaric athera nahi direlacotz, injustiziac eta ohointzac
eginez. Eta, j., zer ezraiu nahi du ene damnazionea ez jinic ere
guritheria tzar batzuetaric helduz balinbada. Zure pasientzia
causetic, ene herratu, ene injustiziatu? — Zer nahi estatutan
izan arren, behar da bizi inozentzian, eta praticatu ezarri Ebanjelioa.
Har dezagun beraz aldi bateta Ebanjelioa eta bertzaldetic
gurenen conduita, eta ikhusiren dugu hainitzec ainitz ahal
dutenez hautetsian urrun ohi dira. Zer daucu Ebanjelioac
erraiten? Behar dela Jincoa maithatu gausa gusien
gainetic, eta lagun proximoa ber burua beçala. Jincoa
maithatu gausa gusien gainetic, ezraiu nahi da, ekharria izan

gurien sacrificatzerat, gurien pasaitzerat hura ofentsa litakeen
beino lehen. Hala ere, ontasun ispi gaten gatic, plazer
tar baten gatic, ohore futis baten gatic Jincoari desobeditzen
Behar da lagun proximoa bere burua bezala maithatu: baina
nun dire lagun proximoari zor zaizcon amodio hoi coltsatzen
eztutenac, edo beren hitzaz, edo beren medisentziaz, edo beren
injustiziaz? Zer daun orano Ebangelioac erraiten? Behar
dela izan estecamendurik gabe lurreco gaucentzat, ontasu-
nentzat, ohorentzat, plazerentzat, eta behar direla bere pasi-
noac mortificatu. Baina zenbat bekhan causitzen direla
egiazco giristino hec, abrastasun handi eta mortifizionia bat beren buruen
alderat praticatzen dutenac, jinthi enbeciatzen direnac tenta-
zione guehtoen garhaitzerat. ocasioneri ihes egiterat, othoitz-
zari jarraikitzen direnac, humilac, pazientac, ichilac, beldura-
modestac garbiac direnac, hitz batez Ebangelioaren arabera
bizi direnac. Behar othe gira beraz estonatu, hain hautetsi
guti izaiteaz, hain guti direnaz geroz Ebangelioari behatzen
direnac? — Hautetsietarik izaiteco, arthi balitz zonbait
erlichionezco marken emaitza, othoitz egitia, elizarat ibiltzia,
meza entzutia, errateco ahal litake hautetsien nombria handia-
goa dela damnatuena beino; ezen, pulimpatua izana gatu desarduri-
minduna, ikhusten da orano erlichionezco marka hautz.
Baina hala hautetsien nombria ttipi egiten duena, hura da
erlichionia causaz praticaturic en zerbutzetan, bizio hautz



baita geroan artian, eta guttiac bertira Jincoaren legia begiratzen
dutenac etsatekhi phondu guzietan, bada arthi da manamenduen
baten hautsia damnatua izaiteco. Zer! zinduac, Jincoaren
legia begiratzen zutelaric leialki; eta hainbertze bortcha beren
buruer egiten zutelaric, zeruan sartzeco, beldur izan balinbadira
orano horietan, hainbertze campo utziac izaiteaz, nola bortchari
batere beren buruer egiten eztuten giristinoac salbatuac izaiteco,
nola esperantza ukhan dezaketen salbatuco direla? — Bedera
egiazco penitentzia batec erreparatzen galdu inozentzia,
izan litake egiazco penitent bezinbat hautetsi; penitent-
ziai, egiazcoai, zabaltzen zeitiot ate bekhatoroseri zerua.
Baina egiazco penitentzia continozco inozentzia bezin arra-
roa duzu case. Eta zuer, zer da penitentzia? Berthut
bat hautzu ekhartzen gaituena Jincoaren justiziari ga-
zauren satisfatzerat, haren majestateari gure bekhatuez
egin laidoarentzat. Zer da penitentzia? Igan bekhatuen
hastiatzia, eta hiuen hastiatzia hainbertzetaraino non
prefera baitetake, zer nahi duen sofritzia, bisiaren berara
galtzia, hetan berriz erori beino lehen. Zer da penitentzia?
beren pasionean mortificatzia orai, eta bere buruari sofri-
araztia orai; antzinian hartu plazer debecatuen alderat.
Bada, nola egiten othe dut penitentzia, egiten dutena berea?
Interroga zazu, g., zure contrizionea, eta ikhus azu zure
penitentziaz baditzunetz necesario diren calitateac, ona eta

egiascoa iraiteco. Cofesatzen zira, cofesatzen ibiltzen zira, egia da; baina cofesatu aintzinian examinatzen othe zira behar bezala? Cofesatzian declaratzen othe dituzu zure bekhatuac gusiac, lehenik examina serios baten ondotic esagutzen dituzun bezala, zein bere numbrearekin eta circonstantziekin? Dolutua othe zira bere gusiaz eguiazki, eta sanyatzen othe zira zure conduitaz? Egiazco penitent iraiteco, diot bethi egiazcoa, behar da orai satisfatu laguna proximoari eguin zaion calteaguatzat, edo bere ontasunetan, edo bere famaan eta ohorian. Ostatzen da frango aldiz, injustiziac, ohoinkeriac eta transferiac eguiten direla, baina sekulan casi erresttituzioneac edo erreparazioneac eguiten direla, eta bekhitariac hoi gabe, ez da penitentzia iraiten ahal egiascoa. Zeren eta ikhusi dituguenetarik, agueri da, g, hautetsi gutti dela. Escritura saindua eta girauna conduita hor dira frogatzat, bai ikhusiratzat. Zure conduita examinatzen ahal othe daicen bietaric iragan zirelaco esperantza? Ez estatu hartan zira? Nahi othe zinuke guintarke orai zira bezala aguertu juge soberanoaren aintzinean? Ba othe dituzu behar diren calitatiac [gusiac] zure confesioneco estimatzeco hartuac iraiteco? Ikhusten baduzu, ez dituzula gehiago luzatu gabe, entseia zite serioski ukhaiteco, eta hautetsien numbrian ustezia izana gatic, zeren baliz baduzu orai hartan causi gitarthe, esplicatuco dutan bezala bertze aldi baten.

J. M. J.

(9)

# Incarnazione

[illegible]

[illegible]

[illegible]

J. M. J.

1

Venit fortior me post me, cujus non sum dignus solvere corrigiam calceamentorum ejus. — Ni baino botheretsuago bat heldu da ene ondotic, eta ez bainaiz harren oinetacoen lotkharria lachatzeco gai.

Eliza, g., abendo gucian ocupatzen da bereziki Jaincoaren Semea lurrerat ethortziaz. Bere ofizio eta eracuspenetan ezdu bertzeric aiphatzen. — Jadanic behin ethorri da lurrerat Jaincoaren Semea, eta ethorrico da bertze behin oraino. Harren lehenbiziko ethortziac eracutsi du harren misericordia, eta behar gaitu confientziaz bethe. Bigarren aldian ethortziac ager-araziko du harren justizia eta behar gaitu izitu. Lehen ethortzia agertu da Incarnazioneco misterioan, eta hura zen gure salbatzeco. Bigarren ethortzia izanen da munduaren akhabantzan eta hori gure jujatzeco. Lehen ethortzeari J. B. Joanic bihurtu zuen lekhucotasuna hastian aiphatu hitzez: ni baino botheretsuago bat heldu da ene ondotic venit fortior me post me. Eta J. B. Joaniren lekhucotasunac indar gehiago baizuen Juduer sinhets arazteco egiazki Mesias ethorri zela, bera baitzaucaten ordu artio Mesiasentzat. Ezin dezagun, g., misterio horren ahalaz comprenitzerat edo misterio hortan ikhusterat Jaincoaren guretzaco amodio izari gabea; baiñan ez dakigula artki izan, Jaincoaren guganaco amodio samurra ikhustea, sor-araz dezagun oraino gu baithan hainbertze amodiorentzat Jaincoac merezi duen ezagutza.

Nolacoa izan da beraz gizonen alderat Jaincoaren amodioa

Incarnacioneco misterioan! Eta gure amodioa nolaco behar da izan Jinco bat gure gatic gizon eginaren alderat?

1.er P. Jincoaren Semea, gucietan Aita bezain bat dena, Aita bezain ongi bethidanic Jinco dena, gizon egina gu bezala, gure beralaco naturalezaz jauntzia, eta J. Kristo deitzen duguna, horra, g., zer den Incarnacioneco misterioa; misterio horren obratzeco chedea bazuen Jincoac egundainotic; gizonac hortaz jakintsun eginac ziren, profetec Juduer anonciatua zen aintzinerat, eta paganoer beren arabera profeten erran guciac bethe dira J. Kristo baithan, eta hainitz obra miragarriren bidez eracusterat eman duen J. Kristoc gizonic argituener eta munduko guciari hartaz, mintzo zirela, horren eracuspenac egia bera zirela, hitz batez, Jinco bat zela bere Aitaz lurrerat egorria. Misterio hori, g., sinhesten dugu eta sinhesten dugula agertzen dugu camporat; ez dugu beraz gehiagoco frogaric bilhatzeco; Jincoac eracutsi daucun amodioaren ezagutzerat eginen dugu bakharric; ezen hor agertu dira guziz dio Apostoluac Jinco Salbatzailearen ontasuna eta amodioa. Apparuit humanitas et benignitas Salvatoris nostri. Eta zer amodioa eta zer ontasuna? Amodioric bizicna, eta amodioric generosena; amodioric bizicna, ekharri baitu gure atheratzerat zorigaitzetan handienetic, eta amodioric generosena, ekharri baitu bere buruaren sacrificatzerat gu libratzeco.

Ikhusteco Jincoaren amodio bizia gure alderat Incarnacioneco misterioan, lehenic ekhar dezagun gogorat, zer heinetan zer estatu tristean gintuen ezarri bekhatuac. Fedeac eracusten



daucu lehen gizonac bekhatu egitearekin, galdu zuela inocentzia ez choilki beretzat, bainan oraino bere ondoco guzientzat, eta inocentziaz bertzalde harri eratchikiac ziren on guziac. Nola Jincoac ezarri baitzuen gure zortea harren escuetan eta nola gure zoriona ethorri behar baitzen Jincoac egin zioen manamenduaren begiratzetic, hala hala harren erortzia izan zen gure zorigaitzaren causa; harren desobedientziac hil gintuen, gabetuz gu ere berekilan batean Jincoac emana zioen grazietaic; zerua ordu beretic zerratu zen guretaco eta condenatuac oraino izan ginen hilzerat eta miseria eta gaitz suerte guzietarat. Horra, g., ethorkizuneco bekhatu hura, gizon bakhar baten bidez munduan sartu dena, eta sortu aintzinian hil arazten gaituena; horra zauri handi hura medico baten bere Odolaz garbitu behar izan duena. Lavavit nos a peccatis in sanguine. Eta zer beraz bilhacatuco ginen, Jincoac ez balauco, urricalduric, escua hedatua bekhatuaren lece barnatic atheratzen laguntzeco. Gabetuac zerurat joaiteco drethotic, guhaurrec ez ginezaken dretcho hura berriz ukhan nihoiz ere, eta gure zorigaitza osatzen zuena, ethorkizuneco bekhatuaz bertzalde, baginituen guhaurrec, gure naturatarat bekhatu frango eginac, condena arazteco gintuztenac ifernurat, han debruekin jasaiteco thormentuta suerte guziac. Atsekabegarria zela beraz gizonaren planta! Bazuen etsitzeco arrazoinic asko, bere zorigaitzian ez balu laguntzaleric ukhan.

Bainan g., eskerrac bihur ditzagun Jinco urricalsuneaz betheari hainbertze miserian erdian gure bisitatzerat ethorri delacotz, eta

gathibotasunetic ezsi gaituelacotz- quia visitavit et fecit re-
-demptionem plebis suæ. Gure bekhatiac ekhusiric, gure ondo-
-tic ibilia; guri zen lehembizico urhatsa egitia, baiñan ez gin-
-tazkeen nihoiz solamente harren ganat jiaiteco. Gure ezindu-
-raz izan da hunkitua; hedatu dauzu eskua althatzeco; harren
ganic berechtu giñituen nausu dorphea arditzi du; medio
caritatez bethe hoi, dio S. Bernardec, ethorri da eriaren ondorat;
Artzain on hoi ibili da ardi errebelatuaren ondotic, harren a-
-theratzeco ifernuco otsoaren ahotic; Aita bihotz-bera hoi bere
Seme haur prodigoari aintzinerat juan zaio, hartu du bere adichkide-
-tasunean, eta berriz eman du galdu zituen dretcho gu-
-zietan. Ba, g., horrela maithatu gaitu gure Jinkoac Incarna-
-zioneco misterioan; haimbertez gaitetzarik gure atheratzeco obra-
-tu du misterio hoi. Gure erosteco, bizia berriz guri emaiteco, erra-
-n du S. Paulec, egorri du zeruco Aitac bere Semea lurrerat; eta
gure salbatzeco zeruetaric jautsi da Seme adoragarri hoi: qui prop-
ter nos homines et propter nostram salutem descendit de cœlis.
O beraz Jinkoaren amodio bizia gure alderat misterio hortan
baiñan dathkusagun oraino zoin den generosa, bekhatuz zen egin-
-arazten eta zer eman-arazten dioen gure erosteco.

Jinkoac barkha zezokeen bere bekhatua gizonari, bihur-
-zetzokeen bekhatu eginez galdu zituen dretcho guziac, errepara-
-zioneri batere gabe, edo Incarnazioneco misterioac zerratzendue
beiño erreparazione ttipiago baten bidez. Haatik zangoa Jinkoari
bere zuzenaren utziarta orduan agertu zen harren misericordia

Baiñan horrela bezia etzuen ukhanen harren justiziác. Har-
-ren justiziac galdeitzen zuen erreparazione bat egina izan zango
dauna bezain handia. Eta nola daunac ez baitzuen izariric, behar
zen bitima bat osoki baliosa daunu hura ezestatzecotzat.
Baiñan, g., nork egin Jinkoari, harren justiziac nahi galdeitzen zuen
erreparazionea? Gizonac alferretan bilhatuco zuen bere baithan
zertaric paga bere zorrac Jinkoaren alderat; bere gaitzaren ithur-
-burua berecthilan zathkhartzeen, ez ordian erremedioa; ez deus hutsa
-zelacotz harren bekhatua haubeltenaz handiagoa zen, baiñan ez
deus hutsa zelacotz harren eguitza onec guti zuten balio. Al-
-ferretan oraino juanen zen bertze creaturen ganat, hetaric nehor mere-
-zimenduac ofreitzitzeco Jinkoaren justiziari zor zaukonaren al-
-derat; aingeru guziec eta gizon guzien berthutec etzizten deusic, gizon
bekhatoroac Jinkoari ein daunaren aldian; halaco gisan beraz
non gizona bethi zordun gelditu baitzen, ez balitz Jinkoa bera
cargatu bere gostuz bere burari egitiaz nahi zuen erreparazione
guziaz et gizonaren gainetic khentzeaz horrela merezitu zituen
gastigu izigarriac. Baiñan nola gizona baitzen bekhatu egin
zuena, eta Jinkoac berenaz ez baitzezakeen paira eta ez baitzitakeen
hil, bekhatua ezestatuco zuen bitimac behar zuen ukhan gizon-
-aren naturaleza, S. Agustinec erran bezala. Eta oraino Jinkoa baitz
bakharric, gizonaren bizinamenez ondharez eta heriotzeari necesario zirin mere-
-zimenduac erran zitzarkeena, behar zen bitima hura, dio aren S.
Agustinec, izan Jinko eta gizon denbora berian. Horra bada, g.,
Jinkoaren misericordiac harren zuzentasunari asma-arazi duena

gizonari emaiteco bere zorraren pagatzeco ahala. Jincoa-
ren eta gizonaren naturalezac aurkhituz dira elgarrekin J.
Kristoren presunan eta halaber misericordia eta justicia, pro-
fetac erran bezala, misericordia et veritas obviaverunt sibi. Bata
eta bertzea bere dretchoekin gelditu dira; misericordiac barkhatu
du gizon hobendunari eta justiciac ukhan du osoki bere zuzena.
Ez othe da hori, g., amodioric generosena? Hitz bat eta hats
colpe bat baizic etzaio gostatzen Jincoari gizonaren egitea eta
harren erostea aldiz gostatzen zaio duen seme bakharra. Etzuen
seme hura baizic, dio Apostoluac, eta mundua hain maite izan du-
non seme hura eman baitu munduaren erosteco. Sic Deus di-
lexit mundum ut filium suum unigenitum daret. Gizonaren
bekhatuac etzuen den gutiena, eta gizonaz bizitzi damnatua izan-
arren, Jincoac hainbertze amodio ukhan du, berriz erosteco, creatu-
ra ez deus harrentzat non utzi eta eman baitio ez aingeruetaric bat
baizic bere Seme bakharra eta zertaco utzi eta eman dio? harren
plazan eta harren orotan sacrificatua izateco. Bere Aitaren na-
hiari behatuz, Seme adoragarri hori phaxatu da gizonaren berme,
ez baitzen gai gizona Jincoaren justicia zorratzari zor zuenaren
pagatzeco. Gure hobenac harta ditu bere gain; bekhatu eta ezes-
tatu da gaitzkibo bat iduri izan artio: exinanivit semetipsum
formam servi accipiens. Plaunta hortan ofreitu da bere Aitaren
justiciari; gizonac bekhatu eguiez merezitu gurien pikharratzeco,
diviharen: ezdituzten ouketsi gizonen sacrificioac eta bitimac, baina
formatu darotatzut gorphutz bat, eta heldu niz zutzu gorphutz



zure samurgo guzia bakhoarri pasaiteco, gizonen merezitu col-
pe guziac ene gainerat itzulikitzen, jo nezazu, ikhen diezadazu
bizia, hec ordian utzkitzu, eta barkha zozute, ecce venio. Agi-
da, g., izanic ezda Jincoaren gizoncatzeco amodioac. Nekhez
causi litake, dio Apostoluac, hobenic ezduenarentzat hil nahi
litakeena; zoin handia ez da beraz izan Jincoaren amodioa, hoben-
dundico gizonaren alderat! Zer gauza miragarria, dio S. Agustinec,
medicina bilhaca dadin eri, eriaren sendatzeco! Zer gauza miragar-
ria Jinco bat aphal dadin, gizonaren altchatzeco, eri dadin
errumes harren aberasteco, har dezan gizonaren iduria, gizonari
emaiteco bere iduria. Berriz erraiteco, ez othe da hori, g., amodio-
ric harcarrena eta generosena? Bainan, gure aldian nola behar
dugu maithatu Jinco bat gure gatic hunela gizon egina?

2o P. Amodioac nahi du amodioz pagatua izan; zoinbatenaz
